

Gizarte hezitzaileen praktika profesionalaren testuinguru instituzionala

*HAURBABESA LANBIDE taldea**

Euskal Herriko Unibertsitatea

GAKO-HITZAK: Haurtzaroa, Babesgabetasuna, Gizarte Hezkuntza.

Jarraian aurkeztuko den lan honetan babesgabetasun egoeran dauden haur eta gazteen eremuan diharduten profesionalengan jarriko da arreta. Gizarte errealitate berriak direla eta, Gizarte Hezkuntzako profesionalen esku hartze esparrua konplexua eta aldakorra da; gizarte hezitzaileek konplexutasun honi aurre egin behar izaten diote praktika profesional anitzak garatuz. Baina paradoxikoki, praktika hauek ez dira behar bezala bildu, aztertu, teorizatu eta berreraiki hezkuntza izaera duen produkzio zientifikoaren parametroetatik.

Gizarte Hezitzaileen praktikaren gaineko ikerketa esanguratsua izango bada, beharrezkoa da lehendabizi era sakonean ekintza profesionala gauzatzen deneko testuingurua aztertzea. Testuinguru horren gainean zehaztapenak egitea lan zaila da, ordea, sare konplexu eta korapilatsuen aurrean aurkitzen baikara. Babesgabetasun egoeran dauden haur eta gazteekiko arreta Estatu mailako nahiz Autonomia mailako legediek bermatzen dute eta herrialde eta udalerrietako administrazioek aurrera eramaten dute. Arreta eta zerbitzu sarea zabala eta konplexua da: izaera publiko eta pribatua duten zerbitzuak daude eta gainera, asistentzia, heziketa eta/edo terapiak lotutako funtzioak elkarrekintzan aurki ditzakegu. Laburbilduz, testuinguru honetan administratiboki izaera ezberdina duten erakundeak aurkitu ditzakegu, gizarte eragile diferenteak, figura profesional ugari eta subjektu mota ezberdinei zuzenduriko esku har-

* HAURBABESA LANBIDE ikerketa taldea (Euskal Herriko Unibertsitatea UPV/EHU eta Gizarte Hezitzaileen Euskadiko Elkargoa) Idoia Fernández, Jesus Otaño, Maite Arandia, Josebe Alonso, Nerea Agirre, Arantza Remiro, Nekane Beloki eta Arantxa Uribe-Etxeberriak osatua. (<http://www.haurbabesalanbide.net>)

tzeak. Beraz, errealtate anitza, konplexua eta zailtasunez beterikoa dugu aurrez aurre.

Lan honen bidez gizarte hezitzaileen praktika profesionala ulertu eta hausnarketa egiteko beharrezkoa den testuinguru honen gaineko ekarpena egin nahi dugu, era alderatuan Euskal Autonomia Erkidegoko (EAE) herrialdeak aztertuz. Lan honek gizarte hezkuntzako eta unibertsitateko profesionalez osatutako ikerketa taldeak burututako lanaren zati bat islatzen du¹.

1. ARAU ESPARRUA

Haur eta gazteen zaintza tradizionalki Foru Aldundien eta Udalerrieta-ko Korporazioen esku egon izan da, Gizarte Zerbitzuak sortu arte. Gizarte Zerbitzuak Eskubide Estatuari, gizarte bazterketaren tratamenduari eta haurren eskubideei lotuta sortu ziren eta hauen sorrerak eta garapenak administrazio eredu ezberdinak ekarri zituzten.

XX. mendean nazioarteko komunitatea adingabekoen ahultasunaz eta aldi berean garrantziaz kontzientzia hartzen hasten da. Horren isla Haurren Eskubideei Buruzko Nazio Batuen Konbentzioa (1989) eta Europako Parlamentuak 1992ko Uztailaren 8an ebazpen bidez onartutako Haurren Eskubideen Europako Gutuna. Haurtzarora eskubide objektua izatetik, eskubide-dun subjektu aktibotzat hartzera pasako da.

Nazioarteko araudiek Estatu espainiarra alor honetan bere legedia egokitzen behartu zuten. Lehenik eta behin Azaroaren 11ko 21/1987 Legea aipa daiteke, zeinak adingabekoen adopzio eta beste babes mota batzuei buruzko Kode Zibilarren eta Prozedura Zibileko Legearen zenbait artikulua aldarazi zituen. Funtsezko aldaketak eragin zituen haur eta nerabeen babesaren arloan. Gainera, erakunde publikoak sistema berriaren ardatz gisa hartzen zituen eta hauei babesaren gaineko eskumenak atxiki. Gero, 1/1996 Lege Organikoa, urtarrilaren 15ekoa, Adingabekoen Babes Juridikoari buruzkoa dugu. Eta lege honek Kode Zibila eta Prozedura Zibilari buruzko Legea partzialki aldarazi zituen. Arrisku egoerak eta babesgabetasun egoerak bereizi ziren, erakunde publikoen esku hartzean maila ezberdinak planteatuz. Aipatu beharra dago 5/2000 Lege Organikoa, urtarrilaren 12koa, adingabekoen zigor erantzukizuna arautzen duena. Administrazio autonomikoei ematen zaizkie araua hausten duten adingabeei ezarritako neurriak egikaritzeko konpetentziak.

¹ Ikerketa lanaren izenburua «El contexto profesional de los educadores sociales en el ámbito de la infancia desprotegida: situación actual y propuestas» da. Euskal Herriko Unibertsitateak diruz lagundu du 2006-2008 urteen artean. UPV05/124. HAURBABESA LANBIDE lan taldea.

1. taula
Haur eta Nerabeen Babesaren arloko legeria

Nazioartea	Estatu espainiarra	Euskal Autonomia Erkidegoa (EAE)
<p>1989: Haurren Eskubideei buruzko Nazio Batuen Konbentzioa Nazio Batuen Biltzarrak 1989ko azaroaren 20an onetsia eta Espainiako estatuak 1990eko azaroaren 30ean berretsia.</p> <p>1992: Haurren Eskubideen Europako Gutuna Europako Parlamentuak ebazpen bidez onetsia 1992ko uztailearen 8an.</p>	<p>1987: Azaroaren 11ko 21/1987 legea Kode Zibilaren eta Prozedura Zibilari buruzko Legearen zenbait artikulua, adingabekoen adopzioari eta beste babes mota batzuei buruzkoak, aldarazi dituena.</p> <p>1996: Urtarrilaren 15eko 1/1996 Lege Organikoa Adingabekoen Babes Juridikoari buruzkoa, Kode Zibila eta Prozedura Zibilari buruzko Legea zati batez aldarazi dituena.</p> <p>2000: Urtarrilaren 12ko 5/2000 Lege Organikoa Adingabekoen zigor erantzukizuna arautu duena</p>	<p>1983: Azaroaren 25eko 27/83 legea Gizarte Zerbitzuei dagozkien eskumenei buruzkoa.</p> <p>1996: Urriaren 18ko 5/1996 legea Gizarte Zerbitzuei buruzkoa.</p> <p>1998: Maiatzaren 22ko 12/1998 legea Gizarte bazterkeriaren aurkakoa.</p> <p>2005: Otsailaren 18ko 3/2005 legea Haurrak eta nerabeak zaintzeko eta babestekoa.</p> <p>2008: Abenduaren 5eko 12/2008 legea Gizarte Zerbitzuei buruzkoa nerabeak zaintzeko eta babestekoa.</p>

Nazioarte eta estatu mailako arau marko honek EAEko adingabekoen babeserako sistema publikoaren sorrera eta garapena ekarri zuen. Honen bilakaeran bi fase nagusi bereizi daitezke.

1. Abiapuntu gisa tradizionalki Foru Diputazioek esku hartzean jokatutako papera aintzat hartuz eta Euskal Herriarentzako Autonomia Estatutuaren ezarpenaz (Abenduaren 18ko 3/1979 Lege Organikoa) Gizarte Zerbitzuei dagozkien eskumenak Azaroaren 25eko 27/83 Legearen bidez ezarri ziren. Izan ere, Autonomia Erkidego osorako erakundeen eta lurralde historikoetako foru organoen arteko harremanak arautzeko oinarriak ezarri zituen. Honen arabera, herrialde historikoei dagozkien adingabeen babes, zaintza eta birgizarteratzearen inguruko funtzio eta zerbitzuak. Ondorioz, Adin Txikikoen Babes Juntak desagertuko dira. Gerora, Eusko Legebiltzarra gai honen inguruko arauak ezarri ditu. Honen adibide, Gizarte Zerbitzuei buruzko urriaren 18ko 5/1996 Legea (gaur egun Gizarte Zerbitzuen lege egitasmo berria dela medio erreforma bidean dagoena) eta Gizarte Bazterkeriaren Aurkako maiatzaren 22ko 12/1998 Legea. Lehenengo fase

honetan sistema publikoaren baitan haur eta nerabeen babesaren Gizartekintza edo Foru Aldundietako Gizarte Zerbitzuetako departamentuen bidez gauzatzen da.

2. Jendartearen problematika berriak azalduz doazen heinean, arreta eremua zabaldu egiten da esku hartze sistemak eta zerbitzu sareak geroz eta konplexuagoak eginez. Alor honetan aldaketa kualitatibo esanguratsuenak 2000. urtetik aurrera hauteman daitezke. Gure ikuspuntutik 2000. urtean arreta sistemaren berrantolaketa eta zerbitzuen hedapenean eragingo duen aldaketa fasea hasten da. Berrikuspen eta erreforma aldi honetan Foru Aldundi nahiz Udaletxeek haur eta nerabeekin esku hartzeko gidaliburuak² eratu eta onartzen dituzte, alor honetan diharduten profesional eta administrazioaren jarduna koordinatu asmoz. Araudi aldetik Eusko Legebiltzarrak Haurrak eta Nerabeak Zaintzeko eta Babesteko otsailaren 18ko 3/2005 Legea onartzen du. 2008. urteko abenduan, gainera, Gizarte Zerbitzuen lege berriak esku hartze giza-hezitzailea sendotu egiten du, Gizarte Hezitzaileei protagonismoa onartzuz.

2. taula
**Euskal Autonomi Erkidegoko adingabekoen
 babeserako sistema publikoaren garapena**

<p>1.go fasea Babes sistema publikoaren funtzio eta kompetentzien arautzea</p>	<ul style="list-style-type: none"> — Babes sistema publikoaren arautze fasea da. — Haur eta Nerabeen babes, zaintza eta birgizarteratzearen inguruko funtzio eta zerbitzuak herrialde historikoen eskumenean gelditzen da. — Funtzio eta zerbitzuak Foru Aldundietako Gizarte Zerbitzuetako departamentuen bidez gauzatzen da.
<p>2.go fasea Arautze espezifikoa eta konplexutasun praktikoa</p>	<ul style="list-style-type: none"> — Berrikuspen eta erreforma aldia da. — Eusko Legebiltzarrak Haurrak eta Nerabeak Zaintzeko eta Babesteko Legea onartzen du. — Haur eta nerabeekin esku hartzeko gidaliburuak eratzten dira. — Praktikan ezberdintasunak.

Hala ere, esan behar da administrazio aldetik ematen den bilakaera honekin batera herrialde bakoitzaren jardueran ezberdintasunak aurkitu daitezkeela.

² Haurrak Babesik Gabeko Egoeretan daudenean Esku-hartzeko Gida, Gipuzkoako Foru Aldundia (2005); Donostiako Udala, Gizarte Ongizate Saila: Haurtzaroko Esku-hartzetarako Eskuliburua; Esku-hartze Gida Araban (2004). Gizarte Ekintza Saila (2005): Babesik gabeko Haurrekin Esku Hartzeko Eskuliburua. Bilbo. Bizkaiko Foru Aldundia.

2. GIZARTE HEZITZAILEA SISTEMAREN BAITAN

2.1. Konpetentzien zehaztapen praktikoak

Esan bezala, Gizarte Zerbitzuen 5/1996 legearekin haur eta nerabeen gain egindako lana herrialdeetako administrazioetan —Foru Aldundiak— eta udalerrietan —Udaletxeak— banatzen da, hartaratu beharreko haur edo nerabearen egoeraren arabera. Lehenengok babesgabetasun egoera larrien aurrean esku hartzen dute. Besteek berriz babesgabetasun arina eta prebentzioaren eremuan jarduten dute. Banaketa horrek dakarren zailtasun nagusia aurrez babesgabetasun maila zehaztu beharra da, honen arabera kasuak administrazio edo zerbitzu baten edo bestearen ardurapean jarriko baitira.

Konpetentzien banaketa honi praktikan erreparatzen badiogu zenbait berezitasun aurkitzen ditugu.

Araban irizpide geografiko eta historikoez hartzen dute pisua. Gasteizko udalak kasu arin eta ertainez gain, udalerriko babesgabetasun egoera larrien gaineko esku hartzeak bere gain hartzen ditu eta Aldundiak herrialdeko beste udalerrietakoak. Ondorioz, Gasteizen egoera larriei erantzuteko Udalaren zerbitzuak eta Foru Aldundiaren menpe daudenak aurki daitezke. Zerbitzuen kudeaketa bikoitza honek, ondorio politiko eta administratiboak izateaz gain, adingabeekin egiten den heziketa lanean badu eraginik, konplexutasun administratiboak prozesuen geldotzea ekar baitezake. Esaterako, esku hartzeari hasiera edo amaiera emateko garaian.

Gipuzkoa eta Bizkaian konpetentzien banaketa babesgabetasun egoeren larritasunaren arabera da. Udaletxeetan kokatzen diren Oinarrizko Gizarte Zerbitzuek arrisku arin eta ertaineko kasuen inguruko prebentzio eta esku hartzerako programen ardura hartzen dute. Eta Foru Aldundiek, Gizarte Zerbitzu Berezien bidez, babesgabetasun egoera larrien aurrean esku hartzen dute.

Aipatutakoaz gain, Bizkaian arrisku egoera arin eta ertainen aurrean esku hartzeko prozesuak «Haur, gazte eta familien gainean gizarteari eta hezkuntzari begira esku hartzeko planak (GHEP)»³ erregulatzen ditu. Udalerrietan adingabeen babesean esku hartzeko izaera sozio-hezitzailea duen marko orokorra eratzen du araudi honek. Planaren kudeaketan titularitatea udalak izan arren, erakunde ezberdinak azpikontratatu gaiztzen da esku hartzea. 2008.urtean hamaika dira forma juridiko ezberdinen pean programa kudeatzen duten erakundeak⁴. Bizkaian 2008.urtean 44 Gizar-

³ «Haur, gazte eta familien gainean gizarteari eta hezkuntzari begira esku hartzeko plana (GHEP)» Abenduaren 17ko 124/96 Bizkaiko Foru Aldundiaren Foru Dekretua. I Eranskina (1996).

⁴ 2008.urtean «Haur, gazte eta familien gainean gizarteari eta hezkuntzari begira esku hartzeko plana (GHEP)» kudeatzen duten erakunde eta elkarteak: Agintzari Gizarte Ekimenerako Kooperatiba, Aldaika Elkartea, Bidegintza Elkartea, Emankor Elkartea, Gazte Leku Elkartea, Haurkide Elkartea, Ludoland, Ortzadar Elkartea, Gurutze Gorria Fundazioa, EDEX eta IRSE-EBI (Bizkaiko birgizarteratze institutua).

te Hezkuntza arloko Esku hartze Lantalde aurki daitezke, bertan 187 profesionalak dihardute lanean Oinarrizko 32 Gizarte Zerbitzuri atxikirik eta herrialdean barna 4 zonaldetan banatuta⁵. Talde hauek estruktura komuna gordetzen dute eta beraien egoera profesionala homologatuagoa dago Gipuzkoako egoeraz alderatuz gero.

Laburbilduz, Bizkaian, Gizarte Hezkuntzaren arloan «Haur, gazte eta familien ganean gizarteari eta hezkuntzari begira esku hartzeko plana (GHEP)» dela medio izaera sozio-hezitzailea duen estruktura homogeneoagoa ezarria dagoela esan dezakegu. Araban babesgabetasun egoera larrien gaineko esku hartzea Gasteizko udal erakunde eta foru erakundeak konpartitzen dute. Gipuzkoan oso nabaria da konpetentzien banaketa; oinarrizko zerbitzu orokorak barreiatuta daude, baina udalerrri askotan hutsuneak nabariak dira.

3. taula

Konpetentzien banaketa: berezitasunak herrialdeen arabera

Konpetentzien banaketa	Araba	Bizkaia	Gipuzkoa
Irizpidea	Irizpide geografiko eta historikoen arabera.	Egoeraren larritasunaren arabera.	Egoeraren larritasunaren arabera.
Udalerriko Administrazioa Udaletxea	Gasteizko udalak kasu arin eta ertainak eta Udalerriko babesgabetasun egoera larriak.	Udaletxeetan kokatzen diren Oinarrizko Gizarte Zerbitzuek arrisku arin eta ertaineko kasuak. Gizarte Hezkuntzaren arloan «Haur, gazte eta familien ganean gizarteari eta hezkuntzari begira esku hartzeko plana (GHEP)». Udalerrri mailatik, esku-hartze-ko izaera sozio-hezitzailea duen marko orokorra eratu.	Udaletxeetan kokatzen diren Oinarrizko Gizarte Zerbitzuek arrisku arin eta ertaineko kasuak.
Herrialdeko Administrazioa Foru Aldundia	Arabako Foru Aldundiak Gasteizkoak ez diren beste udalerrietako egoera larrien gaineko esku hartzeak.	Foru Aldundiek, Gizarte Zerbitzu Berezien bidez, babesgabetasun egoera larrien aurrean esku hartzeko eskumenak.	Foru Aldundiek, Gizarte Zerbitzu Berezien bidez, babesgabetasun egoera larrien aurrean esku hartzeko eskumenak.


⁵ Gizarte Hezkuntza arloko Esku-hartze Lantaldeen kokapena: Bilbon 71 profesional eta 11 lan talde; Ezkerraldea-Enkarterriak 53 prof. eta 12 lan talde; Ibaizabal-Nerbioi 30 prof. eta 12 lan talde; Busturia-Urbe 33 prof. eta 9 lan talde.

Beraz, Autonomi Erkidegorako konpetentziak araututa egon arren, hauen banaketa eta gauzatzean ezaugarri bereizleak aurki ditzakegu herrialde bakoitzean, tradizio, ezaugarri geografiko eta sozial, orientazio politiko eta herrialde bakoitzean ezarritako ereduaren bilakaera dela eta.

Gizarte hezitzaileak konpetentzia eta zerbitzuen sare korapilatsu honetan kokatu behar ditugu. Oro har gizarte hezitzaileen funtzioak eta perfilak nahiko lausoak dira; hala ere, dagoeneko onartua dagoen Gizarte Zerbitzuen legeak (12/2008 LEGEA, abenduaren 5koa, Gizarte Zerbitzuei buruzkoa) argi izpi bat ekarriko duela; gizarte hezitzaileak, gizarte langileekin batera gizarte zerbitzuen sistemaren baitako figura profesional gisa hartzen baititu. Esku hartze sozio-hezitzaileaz ere hitz egiten da lege honetan. Esku hartze sozio-hezitzailea gizarte hezkuntzaren barruan beharrezkotzat eta zutabe den elementutzat ikusten da, eta gizarte hezitzaileen figura aipatzen da esku hartze sozio-hezitzailea garatzeko profesional moduan. Gizarte zerbitzuen legeak arestian aipatu den konpetentzien banaketari eusten dio, baina zerbitzuei dagokienez bereizketa egiten du: lehen mailako arreta zerbitzuak (udaletan) eta bigarren mailako arreta zerbitzuak (lurralde mailakoak eta ez espezializatuak). Zerbitzu eta prestazioen katalogoa ezartzen du legeak eta honek esku hartze moten izaera anitzagoa egiten du.

2.2. Kasuen kudeaketa eta prozesua: jakinarazpena, ikertzea eta balorazioa


Behin konpetentziak non dauden edo nork dituen aztertu ondoren, esku hartze prozesuak aztertuko ditugu. Hasiera batean kasuen hautematea eta balorazioa egiten da, esku hartzearekin hasi aurretik. Oro har ibilbidea honako hau izan ohi da:



Atal honetan prozesuaren lehenengo hiru urratsak hartuko ditugu hizpide, prozesuaren izaera ulertzeko eta herrialdeen artean dauden ezberdintasunak atzemateko. Hurrengo atalean, aldiz, esku hartze motak aztertuko ditugu.

1. **Jakinarazpena.** Babesgabetasun egoeren hautematea eta jakinarazpenaren jasotzea nagusiki Udaletako Oinarrizko Gizarte Zerbitzuetatik eratortzen da.
2. **Ikertzea.** Babesik gabeko egoera den eta norainoko larritasuna duen ikertzen da. Larritasunaren arabera udal gizarte zerbitzuen edo lurraldekoen ardura izan daiteke.

4.taula
Ardura banaketa kasuen larritasunaren arabera



3. **Ebaluazioa.** Babesik gabeko egoera arina denean Udaletako Gizarte Zerbitzuei dagokie; kasu larrietan berriz, Lurraldeko Gizarte Zerbitzuei. Balorazio eta orientazio zerbitzua jakinarazpenak jaso, balorazioak egin eta esku hartzea erabakitzen laguntzeaz arduratzen da. Zerbitzu hauetan oro har gizarte langile eta psikologoak aritzen dira lanean.

Ikusten denez, esku hartzeak martxan jarri aurretik ere, herrialdeen artean hainbat berezitasun aurki ditzakegu.

Jakinarazpenei dagokienean, Araban Administrazio ezberdinei dagozkien zerbitzu edo departamentuen arteko koordinazioa instituzionalizatuta dago. Gasteizko kasuan esaterako, Hezkuntza Ordezkaritza eta Gasteizko Udaletxearen arteko protokoloa dute babesgabetasun egoerak hauteman eta jakinarazteko.

Balorazioa banatuta aurkitzen dugu Gasteizko Udala eta Foru Aldundiaren artean. Irizpide geografikoen arabera banaketa da: hots, jakinarazpena jasotako tokitik hurbilen dagoen administrazioak hartzen du ardura. Gasteizko Udaletxetik informeak Foru Aldundira bidaltzen dira, orientazio

eta baloraziorako batzordera. Berezitasunen artean, erantzuna jaso eta neurriak onartu bitartean familiarekin (haurra eta familia bereizi gabe) lanean jarraitzen dela esan behar da, beste herrialdeetan ez bezala.

Gipuzkoan jakinarazpen gehienak Oinarrizko Gizarte Zerbitzuetatik iristen dira eta kasuak jarraitzen duten ibilbidea goian aipaturikoa izan ohi da. 2004. urteaz geroztik, balorazioak egiteko irizpideen gaineko interpretazio ezberdin eta nahaskorrak saihesteko, herrialde honetan Haur eta Nerabeen Zonako Taldeak ditugu (egun hiru talde daude): bi psikologo eta gizarte langile batek osatzen dute taldea. Beraz, ez daude esku hartze sozio-hezitzaileako profesionalak, hots, gizarte hezitzaileak⁶. Talde hauen funtzioa haur eta gazteen esparruko udal zerbitzuei aholku ematea da: haurrak babesik gabeko egoeretan daudenean esku hartzeko gidaren erabilera; hautemate, jakinarazpen eta baloraziorako sistemak sustatzea; prebentziarako programen planifikazioa; profesionalen prestakuntzan edo kasuen balorazioan aholkularitza ematea dira zeregin nagusiak.

Bizkaiko berezitasunak ulertzeko aipatu beharko Bilbon, udal mailan, kasuen baloraziorako Haurtzaroko Komisio Teknikoak daudela. Esku hartzea Foru Aldunditik egin arren, adingabearen espedientea Udalean gelditzen da.

Udal mailan kasuen kudeaketa Oinarrizko Gizarte Zerbitzuetan egiten da eta, oro har, gizarte langileen ardura izan ohi da. Profesionalen arteko elkarlana irizpide eta gertutasun pertsonalen arabera izaten da. Kasuen kudeaketa operatiboa Gizarte Hezkuntza arloko esku hartze taldeetatik (GHET) (gizarte hezitzaileek osatuak) bideratzen da. Talde hauei dagokienean egoera ezberdinekin aurkitzen gara:

- Auzo batzuetan (hirutan konkretuki), ikuspegi komunitarioa txertatuagoa dutela hauteman daiteke lan egiterako orduan. Testuinguru horietan, Bizkaiko Foru Aldundia, Eusko Jaurlaritza eta Bilboko Udalaren arteko hitzarmena medio, aurretik lan sozio-hezitzailea burutzen zuten elkarteetako profesionalak osatzen baitituzte lan taldeak.
- Beste auzo batzuetan, aldiz, aurretik zeuden gizarte zerbitzuetatik eratorritako profesionalekin eratu dira taldeak. Talde hauetan nagusiki gizarte langileak dira izaera sozio-hezitzailea duen lanaren gaineko ardura hartzen duten profesionalak.

Bilbon diagnostikorako taldeak sortzeko zain daude une honetan. Talde hauek gizarte langileak, Oinarrizko Gizarte Zerbitzuari dagokion psikologoen eta Gizarte Hezkuntza arloko esku hartze taldeetako koordinatzaileak osatuko dituzte.

⁶ Giza Eskubideetarako, Enplegurako eta Gizarteratzeko Departamentuaren 2004ko Memoriaren arabera

2.3. Esku hartze motak

Behin hautemate eta balorazio fasea gainditu ondoren, administrazio bakoitzak, definituriko babesgabetasun mailaren arabera, ondoren aztertuko ditugun estrategia ezberdinak jartzen ditu martxan.

2.3.1. *Foru Aldundien esku hartzea: babesgabetasun egoera larriak eta abandonu egoerak*

Egoera jakin bat babesgabetasun larritzat edo abandonutzat jotzen bada, Foru Aldundiek, oro har, esku hartzea elkarloturik dauden bi maila ezberdinetan planteatzen dute: Egoitzetako Harrera eta Familia Esku hartzea.

Bizkaia eta Gipuzkoan	Arabari
1. Egoitzetako harrera 2. Familia esku hartzea	1. Egoitzetako harrera 2. Eguneko Zentroak

2.3.1.1. EGOITZETAKO HARRERA

70. hamarkadan hasi ziren desagertzen abandonu egoeran aurkitzen ziren haurrei zuzenduriko erakunde handiak (umezurtz-etxeak, sehaska-etxeak, erreforma zentroak,...) eta hauen ordeztu, hainbat elkartek, enpresek edo ordena erlijiosoek kudeaturiko egoitza txikiagoak sortuz joan ziren, adingabekoei jarraipen pertsonalizatuagoa eskaini asmotan. Egotetxe hauek profesionalizatu eta espezializatu joan dira urteetan zehar, geroz eta bereziagoak diren egoera problematikoei aurre egin ahal izateko. Epe labur baterako edo epe luzeago baterako familiarengandik bananduak izan diren edo/eta *de facto* bananduak dauden (bakarrik dauden adin txikiko atzerritarak) haur eta nerabeei beraien beharren araberrako elkarbitzita eskaintzea da zentro hauen helburua. Gaur egun zerbitzu hauek ahalik eta gutxien erabiltzeko joera dago, nahiz eta kasu askotan beharrezko baliabidetzat jotzen diren. Aldiz, familia harrera bezalako babes baliabideak, adopzioak eta jatorrizko familian mantentzeko programak geroz eta indar gehiago hartzen ari dira. Hala ere, Egoitzetako Harrerak gaur egun babeserako baliabideen artean pisu esanguratsua izaten jarraitzen du.

Eremu honen azterketa egin ondoren, ezin esan dezakegu Egoitzetako Harrerari dagokionez EAEn zerbitzu eredu bakarra dagoenik, nahiz eta hiru herrialde historikoen artean antzekotasunak egon jarduketa eta ereduak dagokienean. Zentzu honetan, esku hartze eremu honen deskribaketa egitea ez da lan erraza, bere egituraketan hainbat baldintzatzailek eragina izan baitute: zerbitzuaren bilakaeran gertatu diren aldaketa iraunkorrak; egoitzetako harrerak hartu dituen forma ezberdinak (premiadikoa, baka-

rrik dauden adin txikiko atzerritarrentzat baliabide bereziak, beharizanen tipologiaren arabera (kudeaketa tipologia ezberdinak (propioak edo erakundeekin edo enpresekin hitzartuak); beste zerbitzu batzuekin egiten diren elkarketak (adibidez, Araban kasu sozio-hezitzaile haurrentzako eta familia esku hartzea aurrera eramateko eguneko zentroak daude); proposamen metodologiko praktiko ezberdinak; e.a.

Ikuspegi konparatibo batetik azpimarratzekoa da Bizkaian eta Gipuzkoan Egoitzetako Harrera Foru Aldundien eskumena dela, baina ez horrela Araban. Azken herrialde honetan esku hartze honen eskumena Foru Aldundiak (premiadizko bi harrera zentro ditu —Hazaldi eta Bosko etxea—, bi berezko etxe —Geroa eta Sansoheta— eta beste hiru erakundeekin hitzartuak) eta Gasteizko Udaletxeak banatzen dute. Gasteizko Udaletxea konkretuki, 1985 geroztik sortutako eta 1990tik aurrera erakunde ezberdinek zeharka kudeatzen duten Egotetxe Sarearen arduraduna da⁷. Arabaren kasuan, gainera, bada banaketaren eta familian mantentzearen arteko esku hartze mota bat Eguneko Zentroen Sarean gauzatzen dena (gaur egun hiru daude Aldundiarenak direnak, baina Laudioko eta Aguiraingo Udaletxeek kudeatzen dituztenak eta beste bost Gasteizko Udaletxearen esku daudenak). Eguneko zentro hauetan gizartean eta eskolan integrazioarako arazoak dituzten haurrei eta familiei zuzenduriko laguntza eskaintzen da, familiako kideei zuzenduriko esku hartze profesionala aurrera eramaten delarik.

Gipuzkoan ere zentroen jabetzari dagokionez (batzuetan Foru Aldundiarenak dira, besteetan kudeatzen dituzten elkarte edo enpresenak) eta zentroak kudeatzen dituzten elkarten izaerari⁸ dagokionez badira formula ezberdinak. Hala ere, herrialde honetan esanguratsuenak, Foru Aldundiko teknikoek Oviedoko Unibertsitatearekin eta J. Fernández del Valle irakaslearekin batera egindako azterketaren ondorioz (Fernández del Valle, J. y Fuertes, J., 2000 y 2003), zerbitzuak azken urte hauetan jasan duen berrantolaketa izan da. Dagoeneko martxan dagoen berrantolaketa honek berrikuntza batzuk ekarri ditu eta baita aldaketa batzuk ere. Berrikuntzen arloan aipatzekoak dira 16 urtetik gorako gazteei zuzenduriko emantzipazio zentroen sorrera eta 0-3 urte bitarteko haurrei zuzenduriko zentroen desagertzea. Azken hauentzat Familia Harrerarako Programa profesionalizatu bat jarri da martxan.

2006ko irailean Esther Larrañagak, Gipuzkoako Foru Aldundiko Gizarte Politikarako diputatuak, agerraldi publikoan aurkeztu zuen Egoitzeta-

⁷ 2007an Aldundiarekin batera kudeatutako egotetxeen artean honako hauek daude: bata Gurutze Gorriarekin eta beste bi Nuevo Futuroekin. Vitoria-Gasteiz-eko udaletxeak lau egotetxe kudeatzen ditu: IRSE/EBIren esku daude hiru eta bat IZAN elkartearen esku.

⁸ Gipuzkoako zentroak eta kudeatzen dituzten elkarteak: Bide-Berri (7), Nuevo Futuro (7), Gurutze Gorria (6), AEEG (3), CLECE (3), Hijas de la Caridad/UNSAC (3), Fundación Larratxo (1), Caritas (1).

ko Harrera Zerbitzuaren berrantolaketarako plana. Hiru egoera ezberdinei erantzun nahi die bereziki plan honek:

- a) Familiarekiko behin-behineko banaketa: familia berriz elkartzea da helburua, familia esku-hartzerako ekipoekin.
- b) Familiarekiko behin betiko banaketa: familia harreraren bidez adin txikikoa beste familia batean integratzea da helburua.
- c) Adin-nagusitasunetik gertu dauden adingabeak: emantzipazio zentroetara bideratzen dira.

Gipuzkoako Foru Aldundiaren zerbitzuen katalogoaren arabera Egoitzetako Harrera Programak honako zentro hauek ditu bere baitan:

1. Jatorrizko familiarengandik banatutako 0-8 urte bitarteko haur eta nerabeei zuzenduriko egotetxeak.
2. Nortasun arazoak edota zailtasun psikiko eta mentalak dituzten haur eta nerabeentzat egotetxe hezitzaile-terapeutikoa, ahal den neurrian gizarte integrazioa ahalbidetzeko.
3. Gizarte adaptazio larriak dituzten haur eta nerabeentzat egotetxe giza hezitzailea.
4. Komunitateko baliabideetan integrazioa ahalbidetzeko arreta integrala eta erreferentzia eta laguntza marko bat eskaintzen duten egotetxe giza hezitzaileak.
5. Komunitateko baliabideetan integratu ahal izateko gaitasuna eta autonomia arduratsua duten eta adin nagusitasuna gertu duten nerabeei zuzenduriko egotetxea.

Egotetxeen Harrera Zerbitzua, gainera, Larrialdiko Harrera Zerbitzuak osotzen du, non erabiltzaileak gehienez ere bizpahiru hilabetez egon daitezkeen. Zerbitzu honen baitan badira hiru zentro mota: 11-17 urte bitarteko haur eta nerabeei zuzenduriko egotetxea (Zikuñaga), non ebaluazio lanez gain, lan hezitzailea ere egiten den; 0-10 urte bitarteko haurrei zuzenduriko zentroa (Loistarain), non hezkuntza eta egotetxe arreta eskaintzen den, estimulazioarekin eta zaintzarekin batera; bakarrik dauden adin txikiko atzerritarrei zuzenduriko bi zentro, Urnietan eta Tolosan, non lan hezitzaile bat egiteaz gain, egoera erregularizatzen saiatzen den eta laneratzeko proiektuak dauden. Azken kolektibo honi zuzenduriko baliabide berriak ere iragarriak daude, ahaztu gabe oso konplexua eta arazotsua izan ohi dela orokorrean bakarrik dauden adin txikiko atzerritarrekin aurrera eramaten den ekintza profesionala, adin txikikoek dituzten beharregatik eta baita profesionalak dituzten beharregatik ere (gizarte esparrua, esku hartze programak, ratioak,...). Zentzu honetan Gipuzkoan gazte eta nerabe hauek, poliki-poliki, egoera erregularrean dauden populazioa jasotzen duten zentroetan integratzeko joera oso nabarmena da. Joera honek eremu hau etengabeko berrikusketa instituzional eta praktikoa murgilduta dagoe-la erakusten digu.

2000.urtetik aurrera Laguntza Teknikorako Zerbitzua ere badago Gipuzkoan, 6 psikologok osotzen dutena, eta azpimarratzekoa da zerbitzu honetan ez dagoela gizarte hezitzailerik, nahiz eta betetzen dituen funtzioen artean batzuk espresuki hezitzaileak izan. Kontrataturiko zerbitzua da, Foru Aldunditik kanpoko, eta bere lana Gipuzkoako Foru Aldundiko Egotetxeetako Harrera Unitatearen artean eta zentroetako hezitzaile taldeen artean bitartekari lanak egitea da, hezkuntza eta formazio orientabideei dagokienez, beste erakunde batzuetako teknikoekin egin beharreko koordinazioei dagokienez eta baita zentroen ebaluaketari dagokienez ere.

5. taula
Egoitza Harrera Araban

Eskumena	Arabako Foru Aldundiak Eta Gasteizeko Udalak				
Zentroak	Jabetza	Arabako Foru Aldundia eta Elkarteak			
	Motak	Premiazko Harrera Zentroak	2	Arabako Foru Aldundiarenak	
		Berezko Etxeak	2	Arabako Foru Aldundiarenak	
		Harrera etxeak	3	Hitzartuak	
			1	Gurutze Gorriaz	
			2	Nuevo Futurorekin	
		Egotetxeak	4	Gasteizeko Udalarenak	
3	IRSE/EBI				
1	IZAN elkarte				
Esku hartzeen izaera	Esku hartzerako Marko Orokorrik ez				

Antolaketa sarea berez anitza bada, beste hainbeste esan dezakegu egotetxez ere. Azterketa azkar batek agerian uzten du egotetxeen arabera praktikek izaera ezberdina dutela planteamendu hezitzaile ezberdinetan oinarritzen direlako. Guzti hau lanerako abiapuntutzat hartzen diren marko teorikoetan garbi ikusten da, baita profesionalen formazio eta garapen ereduetan, eta funtzionamendu eta esku hartze estrategietan ere. Aniztasun honen arrazoiak, zalantzarik gabe, asko dira; baina, gaur egun oraindik ere ekintza praktikoari kohesioa eta zentzu hezitzailea emango dion marko

teoriko-praktiko baten falta da dispertsio honen arrazoi garrantzitsuenetarikoa. Esku hartze sozio-hezitzailea aurrera eramateko marko komun bat ez izatea, gainera, hiru herrialdeetan gertatzen den zerbait da. Zentzu honetan, egotetxeetan lanean diharduten gizarte hezitzaileek oso beharrezkotzat jotzen dute marko orokor baten definizioa, oinarrizko kontuetan gutxienik, eta argi adierazten dute marko orokor hau, martxan dauden praktika profesionaletatik abiatuz, elkarlanean eraiki beharko litzatekeela profesionalen elkarte/erakundeen eta administrazioaren artean.

6. taula
Egoitza Harrera Gipuzkoan

Eskumena	Gipuzkoako Foru Aldundiak → Egotetxeetako Harrera Unitatea		
Zentroak	Jabetza	Gipuzkoako Foru Aldundia eta Elkarte-enpresak	
	Motak	Larrialdiko Harrera Zerbitzuak	<ul style="list-style-type: none"> — 0-10 urte bitartekoentzat — 11-17 urte bitartekoentzat — Bakarrik dauden atzerritarrentzat
		Egoitzetako harrera	<ul style="list-style-type: none"> — 0-8 urte bitartekoentzat — Nortasun arazoak, zailtasun psikikoak dituztenentzat — Gizarte adaptazio arazo larriak dituztenentzat — Komunitateko baliabideetan integratzeko — Emantzipaziorako zentroak
Beste zerbitzu batzuk	Laguntza Teknikorako Zerbitzua (Harrera Unitate eta hezitzaileen artean bitartekaria)		
Esku hartzeen izaera	Esku hartzerako Marko Orokorrik ez		

Azkenik, Bizkaian esku hartze mota hau Egotetxeetako Harrera Unitatearen esku dago, Gizarte Urgazpenerako Foru Erakundearen (GUFÉ) barnean. Erakunde honek herrialdeko herri ezberdinetan kokaturik dauden zentro propio, publiko eta hitzartuen bidez sare osoari dagozkion zerbitzuak eskaintzen ditu. Zentro hauek bi motatako populazioari zuzenduak daude: babesgabetasun egoeran eta egoera erregularrean dauden adin txikiak (4-18 urte bitartean) eta bakarrik dauden adin txikiak atzerritarrak.

GUFÉk zuzenean bi zentro espezifikoko (gizarte-abegirako unitatea eta urritasun larriak dituztenentzat zentroa) eta egoera erregularrean dauden adin txikiak zuzenduriko egotetxe sarea kudeatzen ditu (9 egotetxe oro-

tara), adin txikiko atzerritarrei zuzenduriko beste sei zentroekin batera (elkarbizitzarako bi unitate eta lau unitate erdi-autonomoak). Egoera erregularran dauden adin txikikoei zuzenduriko sarea beste 15 egotetxek osotzen dute, hitzartuak direnak eta elkarte ezberdinek kudeatzen dituztenak⁹. Era berean, bakarrik dauden adin txikiko atzerritarrentzat badira beste bederatzizentziko askotariko izenak dituztenak¹⁰: lehenengo harrerarako zentroa, larrialdietarako bi zentro, erdi-autonomoak diren hiru zentro, bi erresidentzia eta zentro hezitzaile bat. Horrela, Bizkaian Foru Aldundiak zuzenean kudeatzen dituen zentroak eta baita elkarteekin hitzartutakoak daude; beste herrialdeetan, ordea, azpimarratzekoagoak dira azken hauek. Ondorioz, zerbitzu honetan lan egiten duten Bizkaiko profesionalen artean ezberdintasun nabarmenak daude lan baldintzei dagokienez, baldin eta Foru Aldundiko funtzionarioak badira, GUFEK kontratatuak badira edo kanpoko erakunde edo elkarteren batek kontratatuak badira.

Bizkaian, gainera, egotetxeak ez daude sailkatuak ez adinaren arabera (printzipioz, behintzat), ezta problematikaren arabera ere (bakarrik dauden adin txikiko atzerritarren kasuan ezik) eta ezta adin txikikoen gatazkakortasunaren arabera ere. Herrialde honen kasuan egotetxeak antolatzeke orduan batez ere kontuan hartzen den irizpidea geografikoa da, hau da, ingurune naturalarekiko gertutasuna. Gainera, esan beharra dago, Bizkaian Gipuzkoako egotetxeetan baino haur kopuru handiagoa hartzen dutela.

Gipuzkoan bezala, Bizkaiko Foru Aldundiak 2008ko apirilean onartutako 2. Plan Estrategikoak, Adopzio eta Familia Harrera Zerbitzuak bultzatzearen aldeko apustua egiten du, adin txikikoa berezko ingurunean mantentzearen aldeko apustuaz gain. Hala ere, zerbitzu honen garapen kuantitatiboa gorantz doa, nahiz eta herrialde bakoitzeko erabiltzaileen kopurua ez izan oso uniformea. Herrialde guztietako datu espezifikokoak azaltzen ez baditugu ere, bai sumatzen da babeserako baliabide honetan pausoz-pausozko plazen gehitze bat ematen ari dela. Zentzu honetan, Gipuzkoako Foru Aldundiak publikoki eskaintutako datuen arabera, plazen gehitze esanguratsu bat aurreikusten da ondorengo urteetan, gutxi gorabehera %94,21 inguruko gehitzea, 2007ko datuekin alderatuz gero (2007an 242 plaza eskaintzetik 2012rako 470 plaza eskaintzera pasako litzateke); antzerako gehitzea, ez hain handia, aurreikusten da Larrialdiko Harreraren inguruan ere (2007an 41 plaza eskaintzetik, 2012an 72 plaza eskaintzera pasako litzateke)¹¹.

⁹ Elkarte ezberdinek kudeaturiko zentruak: Asociación Urgatzi (3), Asoc. Bizgarri (2), Terciarias Capuchinas (2), Terciarios Capuchinos (2), Fundación Amigó (2), Unión Nuestra Señora de la Caridad (UNSA) (1), Misioneras María puerta del Cielo (1), Angeles Custodios (1), Cáritas (1). Zerbitzua, gainera, Zanduetako (Nafarroa) erresidentzia terapeutaioan adostutako plazek osotzen dute.

¹⁰ Elkarte ezberdinek kudeaturiko zentroak: Asociación Urgatzi (4), Lan da lan (2), Berriutu (1), Terciarios Capuchinos (1), Fundación Amigó (1)

¹¹ Gipuzkoako Zerbitzu Sozialen II Maparen aurkezpena (2008-2012), Gizarte Politika-rako Diputatuaren eskutik. *Noticias de Gipuzkoa*, 2008ko maiatzak 23.

7. taula
Egoitza Harrera Bizkaian

Eskumena	Bizkaiko Foru Aldundiak → Gizarte Urgazpenerako Foru Erakundea (GUFÉ) → Egotetxeetako Harrera Unitatea				
Zentroak	Jabetza	Bizkaiko Foru Aldundia eta Elkarateak			
	Motak	Larrialdiko Harrera Zerbitzuak			
	Egoitzetako harrera	Adin txikikoak	GUFÉk kudeatuta	11 zentro	
			Kudeaketa hitzartua elkarateekin	15 zentro	
	Bakarrik dauden adin txikiko atzerritarrak		GUFÉk kudeatuta	6 zentro	
			Kudeaketa hitzartua elkarateekin	9 zentro	
				1	Lehenengo Harrera
				2	Larrialdiak
				3	Erdi-autonomoak
				2	Erresidentzia
1	Hezitzailea				
Zentro espezifikoak		Gizarte Abegirako Unitatea	zentro 1		
		Urritasun Larriak	zentro 1		
Esku hartzeen izaera	Esku hartzerako Marko Orokorrik ez				

2.3.1.2. FAMILIA ESKU HARTZEA EGOERA LARRIETAN

Esku hartze honen helburua familiak gaitzea da, haur eta nerabeek dituzten beharrei euren kabuz erantzun diezaieten. Baliabide honek, alde batetik, egoera eta kasu bakoitzaren balorazioa egiten du eta, bestalde, familia hezkuntza ere aurrera eramaten du; honetarako eta kasu bakoitzean

familia hezitzaileekin etxebizitzan bertan bisitak edo lan saioak hitzartuz. Familia kopuru aldakor batekin lan egiten duten profesional hauek beste zeharkako hainbat lan ere egin ohi dituzte: kasuen gainbegiratzaileekin egin beharreko lanak, Oinarrizko Gizarte Zerbitzuekin eta komunitateko bestelako zerbitzuekin koordinazio lanak eta egindako ekintzen erregistro idatzia, besteak beste. Familiarekin egiten den esku hartzea beste profesional batzuen esku hartzearekin ere bideratzen da edo/eta osotzen da, beraien beharren arabera, batik bat, laguntza edo tratamendu psikoterapeutikoarekin eta programako kasuen gainbegiratzaileen bitartez aurrera eramaten den prozesuen jarraipenarekin. EAEko herrialde guztietan arrisku egoera larriarri daudenei zuzenduriko Familia Esku hartze zerbitzuak daude.

Bizkaian, Umeen Zerbitzuan espedientea irekitzen denean, Familiaren Esku-harmen Programa¹² jartzen da martxan Foru Aldundiaren Hartu, Baloratu eta Orientatzeko Ataletik, bai haurra bere jatorrizko familiarekin bada, eta bai momentuz banandua izan bada ere. Programa honen helbururik nagusiena familiak gaitzea da adin txikikoen beharren asetzeari bermatu ahal izateko. Helburu nagusi hau hiru azpiprogrametan gauzatzen da:

- a) Ebaluaketa eta Esku hartze Programa, guraso izateko gaitasunen eta familiako funtzioen balorazio argi bat ez dagoenean. Programa honen iraupena 6 hilabetetako da gehienez eta bere helburuak honako hauek dira: gurasoek haurren zaintzarako dituzten gaitasun errealak ebaluatzea eta kasuaren balorazioa egitea.
- b) Familiaren babeserako programa, banaketa arriskua ekiditera zuzenduriko zerbitzua, beti ere adin txikikoen dituzten beharren asetzeari eta segurtasuna bermatuz. Gehienez bi urtetako iraupena izan ohi du familiarengandik banatu ez diren haur eta nerabeei zuzenduriko programa honek.
- c) Familiaren birbateratze programa, familiarengandik banatuak izan diren kasuan. Helburua pronostikoa egitea da, ahal den neurrian itzulera erabakitzeko eta gauzatzeko; beti ere, egon daitezkeen arriskuak kontuan hartuz.

Gipuzkoan Foru Aldundiko Familiaren Esku Harmenerako Zerbitzuak, egoera bat babesgabetasun larritzat jotzen denean, lau programa ezberdin jartzen ditu martxan, familiak dituen zailtasunen arabera eta partaide diren kolektiboaren arabera. Honako programa hauek¹³ dira Gipuzkoako Foru Aldundiak Familiaren esku hartzerako talde ezberdinekin hitzartzen dituenak:

¹² BIZGARRI elkarteak kudeatua.

¹³ Argabe: Asociación de Orientación y Tratamiento familiar; Asociación Izan: intervención familiar y terapéutica; Secretariado Gitano.

1. GIZALAN: laguntza hezitzailea eta psikosoziala eskaintzen du eta, baita, familia orientazio eta tratamendua ere. Gurasoak dagokien rolean gaitzea du helburu, adingabeen beharrak ase ditzaten eta familia bateratua mantentzeko asmotan edo birbiltzeko asmoarekin. Bi urtetako iraupena du gehienez programa honek.
2. OSATU: haurrak 18 urte bete artean laguntza hezitzailea eta gehigarria eskaintzen duen programa. Babesgabetasun arrisku egoera larrian dauden familiek parte hartzen dute ekimen aitzindari honetan. Aurreikusten da gurasoek ezin dutela haurren zaintza bere gain hartu eta, beraz, haurrari gurasoen osagarri izan daitekeen laguntza sare bat eskaintzen zaio.
3. IZAN: beste programa batzuetatik landu ezin daitezkeen tratatu txar tipologia bereziei zuzendua (batez ere familia barruko sexu gehiegikeriak).
4. DRON EGIN: ijitoei zuzendua. 2003an jarri zen martxan programa hau eta, azken finean, OSATU programaren helburu berberak ditu ijitoei egokituak. Cáritas-en barnean dagoen Secretariado Gitanok kudeatzen du zerbitzu hitzartuan. Erakunde honek jaso ezin ditzakeen kasuak beste batzuk hartzen dituzte: Xera, Lahar,...

Egoitzetako harreraz gain, banaketa eta familia esku hartzearen arteko esku hartze mota bat planteatzen da Araban, familiako kideei zuzendurik dagoena eta eguneko zentroetan gauzatzen dena.

8.taula
Familia esku hartzea Bizkaian

Eskumena	Bizkaiko Foru Aldundia → Haurren Zerbitzua → Hartu, Baloratu eta Orientaziorako Atala		
Programak	BIZGARRI elkarteak kudeatu	Familiaren Esku hartze Programa (FEP)	Ebaluazio eta Esku hartze Programa: guraso izateko gaitasunen baloraziorako. <hr style="border-top: 1px dotted black;"/> Familiaren babeserako Programa: banaketa saihesteko. <hr style="border-top: 1px dotted black;"/> Familiaren Birbateratze Programa: itzulera erabaki eta gauzatzeko.

9. taula
Familia esku hartzea Gipuzkoan

Eskumena	Gipuzkoako Foru Aldundia → Familia Esku hartzerako Zerbitzua	
Programak	Familia Esku hartze Taldeekin kudeaketa hitzartua	GIZALAN: Familia bateratua mantentzeko edo berriz elkartzeko
		OSATU: Arrisku egoera larrietan
		IZAN: Tratu txarrak familian
		DRON EGIN: ijitoei zuzendua
Zerbitzuak	– Babesgabetasun egoerak baloratzeko eta orientatzeko zerbitzua – Familiari zuzenduriko zerbitzu psikoterapeutikoa	

10. taula
Eguneko zentroak Araban

Eguneko zentroak	3	Arabako Foru Aldundiaren Jabetza Kudeaketa Audio eta Aguraingo Udalek
	5	Gasteizeko Udala

2.3.2. *Udaletxeetako esku hartzea: babesgabetasun egoera arinak*

Udaletxeek bideratzen duten esku hartzearen helburua babesgabetasun egoera arinei aurre egitea litzateke. Kasu honetan bi esku hartze mota daude: Familia Esku-hartzea —batzuetan babesgabetasun egoera larrietan ere aplikatzen dena— eta Arriskuan dauden Gaztetxoei Zuzenduriko Esku hartze Giza Hezitzailea, ondoren aztertuko duguna.

2.3.2.1. **FAMILIA ESKU HARTZEA EGOERA ARINETAN**

Bai Gipuzkoan eta bai Bizkaian arrisku egoera arinetan aurrera eramaten den Familia Esku hartzea Udaletxeetatik kudeatzen da, baina kasu bakoitzean tokian tokiko administrazioaren arabera artikulatzen da. Bizkaia-aren kasuan, adibidez, Gizarte Hezkuntzarako Esku hartze Taldeen (GHET) bilakaera dela eta, herrialde guztian zabaldurik dagoen zerbitzua da. Herri mailako esku hartzea «Haur, gazte eta familien gainean gizarteari eta hezkuntzari begira esku hartzeko plana (GHEP)»-ren barnean kokatzen diren

talde hauek kudeatzen dute eta araudi honek esku hartzeari, neurri batean behintzat, marko orokor bat eskaintzen dio, nahiz eta herri bakoitzera eta mankomunitate bakoitzera era ezberdin batean egokitu.

Horrela, ezberdintasun nabarmena dago lan markoei dagokienean: Bizkaian GHEPk elementu komun batzuk sortarazten dituen bezala, Gipuzkoan ez dago markorik herri mailako familia esku hartzearen inguruan, nahiz eta oso hedatua dagoen zerbitzua izan.

Lehen esan dugun bezala, Arabako egoera berezia da zerbitzuen atxikipen administratiboari dagokionean, izan ere, arrisku egoera arinei edo larriei zuzenduriko zerbitzuen titularitatea Foru Aldundiak eta Udaletxeek banatzen baitute. Gasteizen Udaletxeak familiaren laguntzarako diren hainbat zerbitzu kudeatzen ditu: ADA Programa, Familia Terapia, «Espazioa eta Bizitza» eta Etxeetan Laguntza Zerbitzua. Arabar herrialdean familiari zuzenduriko Laguntza Giza hezitzaile programa, berriz, Foru Aldunditik kudeatzen da.

Hauen guztien artean Gasteizen 2006tik nahiko errotuta dagoen ADA Programa azpimarratzea interesgarria iruditzen zaigu. Babesgabetasun egoeran dagoen urte bete eta 16 urte arteko gutxienik seme-alabaren bat duten familiei zuzenduriko programa da hau. Une honetan 20 familiekin lan egiten du, programak onartzen duen gehiengo famili kopuruaz, alegia. Familia bere horretan mantentzea da helburua, hauren beharrak era egoki batean ase ahal izateko gaitasunak lantzen direlarik. Gasteizko Udaletxeak kooperatiba bati kontratatzen dion programa da eta bertan koordinatzaile batek, gizarte langileak, 2 psikologok (hamar egunetik behin taldekako eta bakarkako terapia egiteko) eta 5 hezitzailek (4 familiako 1) lan egiten dute.

11.taula
Familia esku hartzea egoera arinetan

	Gipuzkoa	Bizkaia	Araba
Eskumena	Udalek	Udalek → GHEP plana	AFA eta Udalek
Kudeaketa	Erakundeek	GHET taldeek kudeatu	Konpartitua

2.3.2.2. ARRISKU EGOERAN DAUDEN NERABEEI ZUZENDURIKO ESKU HARTZE GIZA HEZITZAILEA

Arlo honetan ere hiru herrialdeen arteko ezberdintasunak nabarmenak dira. Hiru kasuetan, hala ere, helburua berbera da: nerabeei, testuinguru ezberdinetan zailtasunak gainditzeko eta garapen pertsonala eta soziala lortzeko beharrezkoak diren baliabide eta gaitasunen lorpena ahalbidera-

tuko duen laguntza giza hezitzailea eskaintzea. Beraz, esku hartzearen hartzaileak nerabeak eta beraien familiak izango dira eta, baita, komunitateko baliabide eta zerbitzuak ere. Ikuspegi komunitario batetik planteatzen dira zereginak, beraz.

Bizkaian, GHETek, dagozkien programak garatuz, egituratzen dute nerabeen beharrei eta zailtasunei ematen zaien erantzuna. GHEPek, «Haur, gazte eta familien ganean gizarteari eta hezkuntzari begira esku hartzeko plana»¹⁴, II puntuan zehazten ditu Eremu Irekian egin beharreko esku hartzearen oinarriak: sarrera, helburuak, esku hartze eremuak, motak eta faseak. Nahiz eta oinarri orokor hauek gaur egunean egiten den esku hartze errealeran gaurkotzeko beharra egon, GHETek esku hartze eremu honetan duten sekuentzia orokorra nolako den ikustea posible da marko orokor eta komun honi esker.

Talde hauen baitan, gizarte hezitzaileek, behin esku hartzeko eskaera jaso dutenean, haserako balorazio bat egiten dute, non gaztea eta bere familia kokatzen diren. Ondorioz, hainbat erabaki hartu daitezke: esku hartzea, ez esku hartzea, beste zerbitzu batera bideratzea edo ekintza planean zentratzen den bigarren fasea diseinatzea, helburuak eta esku hartze mota definituz. Hirugarren fase batean jarraipena egiten da eta esku hartzea amaitzen da. Fase guzti hauetan esku hartzea gaztearengan edo/eta familiarengan zentratu daiteke eta, era berean, bakarka edo taldean lan egin daiteke. Gainera, izango duen iraupena aurreikusiz eta esku hartzean landuko diren eremuak (pertsonala, osasunerako hezkuntza, eskola, lanerako hezkuntza, elkarbizitza, aisialdia, inguruarekiko harremanak eta kaleko lana) kontuan hartuz, esku hartzea intentsiboa edo puntuala izango den zehazten da baita ere.

Gipuzkoan oro har eta nerabeei zuzenduriko esku hartzeari dagokionean, eredia Eremu Irekiko Esku hartze Sozio-hezitzailea da, «Komunitateko Gizarte Zerbitzuetatik arrisku egoeran dauden nerabeei zuzenduriko eremu irekiko esku hartze giza hezitzaile programa eredia»-ren baitan kokatzen dena, Gipuzkoako Heziketa Kompentsatorioko eta Prestakuntza Okupazionalako Kontsortzioak publikatua. Erakunde edo elkarte ezberdinek¹⁵ kontratatzen dituzten kaleko gizarte hezitzaileek eramaten dute programa aurrera eta erakunde edo elkarte hauek, era berean, oinarritzko gizarte zerbitzuetan funtzionalki integratuak daude, esku hartze programak garatzen dituztelarik gizarte langileekin batera, baita komunitatean haur eta gaztetxoei zuzenduriko beste zerbitzu eta baliabideekin batera ere. Profesional hauek gizarte hezitzaileak dira oro har, nahiz eta oraindik badauden beste titulazio batzuetatik datozen eta gaitu gabeko profesional gutxi batzuk (gaur egun 62tik 12ren bat, gutxi gorabehera).

¹⁴ Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratua (18993), 1996ko abenduaren 31an.

¹⁵ Gipuzkoan kaleko esku-hartze sozio-hezitzailea aurrera eramaten duten erakundeak, jorratzen dituzten programa kopurua kontuan hartuta: Kalexa Elkartea, Kabia Elkartea, Lorratz Giza Elkartea, Gure Amets, HZ Zerbitzuak, Nura Elkartea, Ostargi, Hezizerb.

Programaren helburua nerabeak zerbitzu sistema ezberdinetan (eskolan, gaztedian, osasuna, epaitegiak,...) eta beste testuinguru sozio-hezitzaile (familia, parekoak,...) dauden baliabide normalizatueta (populazio guztiari zuzenduak) integratzea da. Integrazioaz honako hau ulertu dezakegu: nerabeen partaidetza egonkorra baliabide, zerbitzu eta testuinguru ezberdinetan eta kaleko gizarte hezitzaileekin egindako lanaren baitan lorturiko jakintza, konpetentzia, jarrera eta interesen garapena, orokortasuna eta transferentzia. Programa honek kutsu komunitario nabarmena du eta bakarkako, taldekako edo/eta komunitate mailako esku hartze proiektuak garatzen ditu, batez ere, nerabeek berezkoak dituzten espazioetan egiten den lana azpimarratuz.

Gaur egun Gipuzkoan 25 programa daude martxan, 20 herritan. Badira bi herri handi (Donostia eta Irun) programa bat baino gehiago martxan dutenak. 62 hezitzailek eramaten dute aurrera lan giza hezitzaile hau.

Herri guztietan programak badu laguntza teknikoa eskaintzen dion zerbitzua, Gipuzkoako Heziketa Konpentsatorioko eta Prestakuntza Okupazionalako Kontsortzioak finantzatua. Zerbitzuaren kargu gizarte hezitzaile bat dago eta honek, alde batetik, Programa Ereduaren garapena zaintzen du eta, bestalde, gizarte hezitzaileei programaren garapenerako laguntza eta kontrastea eskaintzen die, batez ere esku hartze giza hezitzaileari dagokionean (esku hartzeko estrategiak, proiektu giza hezitzaileen garapena, e.a) eta, baita zeharkako arretari dagokionean ere (planifikazioa, erregistroa, lan komunitarioa, koordinazioa, e.a).¹⁶

Gasteizen 1988 geroztik dago martxan Esku hartze Giza hezitzaile Programa- Kaleko Hezkuntza Programa. Programa honek eremu irekiko esku hartze giza hezitzailea artikulatzen du, ekintza multzo espezializatua arrisku egoeran dauden haur eta gaztetxoei zuzendua, hau da, faktore sozialak, familiakoak edo/eta pertsonalak direla medio garapen pertsonala eta soziala arriskuan duten haur eta nerabeei zuzendua.

Programaren helburua nerabeek berregituraketa pertsonala eta harremanen berregituraketa prozesua egitea da, berezko ingurunean eta sistema ezberdinetan (hezkuntza, lan mundua, sozialak, kirol mundua, soziokulturak,...) integratuz. Zentzu honetan, ezinbestekoa da komunitatea bera gazteen heldutasun prozesuan baliabide eraginkor bat izatea. Anda-k eta besteek dioten bezala (2003): «Eredu honek subjektuaren parte-hartzea, hau da, proiektuaren dimentsio pertsonala (proiektua bitartekari faktore gisa) eta dimentsio teknikoa (proiektua esperientzian oinarritutako eta kontrastaturiko tresna gisa) uztartuko dituen proiektu giza hezitzaileak diseinatzeko beharra azpimarratzen du eta, era berean, bat etorri beharko luke marko orokor gisa dituen gizarte esku hartze eta garapen komunitario ereduekin».

¹⁶ Antzerako ezaugarriak dituzten beste programa batzuk badaude Gipuzkoako hiru herritan, baina ondorioz, hauek ez daude Programa Ereduan sartuak eta ez dute Gipuzkoako Heziketa Konpentsatorioko eta Prestakuntza Okupazionalako Kontsortzioaren babesean lan egiten.

Programaren metodologiari dagokionean esan daiteke esku hartzearen ardatzak gizarte hezitzaileek nerabeekin duten kontaktua eta presentzia direla. Pertsona hezitzaile hauetako bakoitzak hiriko zonalde batean lan egiten du. A priori aktibitateak ez dira alde aurretik planifikatzen, izan ere hezitzaileak nerabeekin kontaktatzeko, harremanetan jartzeko eta esku hartzeko modu indibidualizatuak jorratzen baititu. 7 Auzo Etxeetan kokatzen diren 15 Gizarte Hezitzaile daude eta programaren eskumena Udaletxeko Oinarrizko Gizarte Zerbitzuek dute.

Kaleko Hezkuntza Programa honez gain, Araban badira nerabe eta gazteentzat Eguneko Zentroak. Zentro hauen helbururik nagusia elkarbizitzan oinarritutako esperientzia hezitzailea eskaintzea da. Zentzu honetan, hezitzaile bikote misto batek eta 10 adin txikikok eguneko ordu batzuk, eskolaz kanpoko orduak, konpartitzen dituzte zentro hauetan; gaztetxoengarapen osoa bultzatuz eta, era berean, familiarekin ere lan eginez guraso rola integral batean barneratu ditzaten. Beraz, arina bezala definitu daitekeen gizarte bazterketa egoeran dauden adin txikikoei erantzun eraginkor bat emateko helburua dute zentro hauek. Hau da: prebentzioa, gizarte normalizazioa eta gazte bakoitzaren heziketa integrala. 90. hamarkadaren hasieran sortu ziren eta lehena Alde Zaharrean ireki zen, Cantón de Santa María Eguneko Zentroa; hain zuzen ere, bazterketak zuzenean eragiten dion auzo baina hau, bertan bizi diren biztanleen kopuru handi batek duen baliabide ekonomiko eta kulturalen eskasiagatik. 2000. urtean Lanbiderako Prestakuntza Zentroa ireki zen, gizarteratze zailtasun larriak dituzten gazteen laneratzea bideratzeko. Gaur egun bost eguneko zentro daude eta lanbiderako prestakuntza zentro bat.

12.taula
Arrisku egoeran dauden gazte eta nerabeekin esku hartzea

	Gipuzkoa	Bizkaia	Araba	
Esku hartze Markoa	«Komunitateko... Programa Markoa	GHEP Plana	Gasteiz: Kaleko Hezkuntza Programa	
	Oinarrizko Gizarte Zerbitzuetan kokatutako Elkartetako Profesionalek kudeatu	GHET taldeek kudeatu	Oinarrizko Gizarte Zerbitzuetatik. Auzo Etxeetako gizarte hezitzaileek kudeatu	
Beste zerbitzu batzuk	Laguntza Teknikorako Zerbitzua		5	Eguneko Zentro
			1	Lanbide Prestakuntzarako Zentroa

3. AZKEN GOGOETAK ETA AURRERA BIDEAK

Egindako deskribapenean garbi ikusten den bezala, benetan da konplexua lan esparru hau eta konplexutasun honek bere alde onak baditu ere, hainbat disfuntzio ere sortarazten ditu. Zentzu honetan, EAEn onartu berria den Gizarte Zerbitzuetako Legearen (12/2008 LEGEA, abenduaren 5ekoa, Gizarte Zerbitzuei buruzkoa) helburu nagusienetako bat praktikan ezberdintasun guzti hauek sor arazten dituzten arazo eta desorekei aurre egitea da, zerbitzuen administraziorako marko unibertsal bat eskainiz. Ikusi duguna ikusirik guk ere mahai gainean jarri nahi genituzke lege berriaren babesean tentu handiz hobetu beharko liratekeen hainbat kontu. Honako hauek, adibidez:

1. Aurreko orrialdeetan ikusi dugun bezala, kasuak hauteman eta baloratzeko prozesuak ezberdinak dira hiru lurraldeetan. Gure ustez, ezinbestekoa da jardunbide eta protokolo argiak definitzea; kasu batzuetan baldin badaude ere, ez baitira egokiro garatzen.
2. Arreta eskaintzeko garaian ere ez dago ibilbide koherenterik. Hau da, herrialde guztietan erakunde arteko koordinazioan desorekak aurki ditzakegu, administrazio ezberdinek eremu itxi gisa funtzionatzen baitute. Horrela, sarritan kasu bat lurralde mailako kompetentzien esku gelditzen denean, udal mailatik ez zaio arreta gehiago jartzen. Eta era berean, zenbaitetan Foru Aldundietatik esku hartze bat amaitutzat eman ostean, egoera Udalaren esku gelditzen da Foru Aldundiarekin koordinaziorik egon barik. Zentzu honetan, lege berriak administrazio ezberdinen arteko koordinazio lana bermatu beharko luke, ibilbide eta protokolo zehatzak definituz.
3. Gipuzkoan ezik, beste lurraldeetan ez dago Arreta Teknikorako zerbitzurik. Lurralde honetan esku hartze mota bakoitzak badu arretarako bere zerbitzu berezia, helburu eta funtzio espezifikoekin, aurretik ikusi dugun bezala. Paradoxikoa dirudien arren, zerbitzu tekniko hauetan gizarte hezitzailea, perfil profesional gisa, ez da agertzen (Gipuzkoan Arrisku Egoeran Dauden Nerabeei Zuzenduriko Eremu Irekiko programaren kasuan izan ezik). Gizarte hezitzaileei orientabideak eta laguntza eskaintzen diharduten profesionalak batik bat psikologoak eta gizarte langileak dira, hau da, zuzenean esku hartze giza hezitzailea aurrera eramaten ez duten profesionalak. Kasurik gehienetan, gainera, profesional hauen artean harreman hierarkikoak eratzen dira, gizarte hezitzaileak dirrelarik besteen menpean daudenak. Lege berriak esku hartze giza hezitzailean lanean diharduten profesional guzti hauen arteko harremanak birdefinitzeko aukera eman beharko luke.
4. Lanerako marko metodologikoei dagokienez, markoen aniztasuna da nagusi, hau da, ez dugu marko global eta orokorrik aurkitzen.

Zenbait kasutan metodologikoki lan egiteko ildoak zehaztuta daude eta garatzen dira; beste batzuetan, existitzen dira, baina ez dira aintzat hartzen eta beste esku hartze mota batzuetan existitu ere ez dira egiten. Marko hauek garatu gabe egotearen ondorioz, programa askok momentuan momentuko erantzunak ematen dituzte, ikuspegi zabalagoak alboratuz. Gure ustez ahultasun metodologiko hau arlo profesional honetan oro har egiten den gizartearen eta gizarteko arazoengatik irakurketa teoriko eta soziologikoaren ondorio zuzena da. Ikusi dugunagatik, zerbitzu eta profesional askorentzat lan hezitzailearen helburua behar berezia duen haurrari bakarkako laguntza ematea da, banakako gizarteratze aukerak eta komunitatearekiko loturak sendotuz eta horietan lan eginez hainbat kolektiboen ahultasuna murriztu daitekeela kontuan hartu gabe. Zentzu honetan, udal mailako esku hartzean ageri da ikuspegi komunitario hau garatuena, ez horrela lurralde mailako esku hartzean, nahiz eta askotan idatziz horrela agertu. Ondorioz, geroz eta handiagoa da haurren inguruan sortzen diren arazoak patologizatzeko eta psikologizatzeko joera. Lan eremu honetan aritzen diren profesionalak hausnarketa sakon bat egin beharko lukete eguneroko jardunean darabiltzaten ikuspegi metodologikoen inguruan..

5. Perfil profesionalen aniztasuna ere lan eremu honen beste ezaugarri bat da. Perfil hauen artean, gainera, batzuetan gizarte hezitzailea ez da agertzen, dagozkion funtzioak beste perfildun profesional batzuk betetzen dituztelarik, sarri gaitu gabeak. Gainera, Administrazioeko postu teknikoetan oso gutxitan aurki ditzakegu gizarte hezitzaileak, Bizkaiko GUFEn kasuan izan ezik. Hala eta guztiz ere, esan beharra dago oro har zerbitzu ezberdinek osotzen duten sare honetan gizarte hezitzailearen figura profesionalaren presentzia errealitate bat dela gaur egun, nahiz eta bere funtzio profesionalak (bereak eskusiboki edo beste profesional batzuekin tarteak dituenak) eta, era berean, kontratazioetarako profilak ongi zehaztu gabe egon oraindik ere. Zentzu honetan, dagoeneko aipatu dugun Gizarte Zerbitzuen inguruko lege berriak gai hau jorratzen du zioen azalpenean, Gizarte Zerbitzuetako oinarriko figura profesional bezala gizarte hezitzaileak ere onartuz gizarte langileekin batera. Ildo berean, bi ahapaldietan zehar lan giza hezitzailearen oinarriak zehazten ditu lege honek, alde batetik esku hartze giza hezitzailea oinarriko eta ezinbesteko elementu gisa azpimarratuz eta, bestalde, gizarte hezitzaileak esku hartze hori aurrera eramateko profesional gisa izendatuz. Ondorengo dekretu batek zehaztuko ditu esku hartze giza hezitzaileako zerbitzuen nondik norakoak eta Zerbitzuen eta Prestazioen Mapak ratioak ezarriko ditu eta, beraz, biztanleko beharrezkoa izango den gizarte hezitzaile kopurua zehaztuko du.

6. Euskal Autonomi Erkidegoan administrazioak baliabide propioen bidez eskaintzen dituen zerbitzuak oso gutxi dira, gehienak lehiaketa publikoen bidez kontrataturiko entitateen bidez aurrera eramaten dira. Kontrataturiko entitateak, era berean, diferenteak izan daitezke: elkar-teak, programa eta zerbitzu asko eskaintzen dituzten erakunde handiak, erakunde txikiak, enpresak, e.a. Lege berriaren asmoetako bat erakunde hauei oinarri egonkorrago bat eskaintzea da administrazioarekin sinaturiko kontzertu eta hitzarmenen bidez. Administrazioak era arduratsuan jokatu beharko luke entitate hauekin, arreta eskaini behar zaien adin txikikoen eskubideak bermatu ahal izateko beharrezkoak diren bitartekoak erakunde hauen eskura jarritz eta profesionalen lan baldintza duinak bermatuz. Izan ere, gaur egungo antolaketaren ondorioz, egoera kaskarrean lan egin behar izaten dute askok (soldata baxuak, lan baldintza gogorak, gizartearen aldetik onarpen eskasa, status baxua...) eta, ondorioz, lanpostu hauetan askotan profesional gazteak eta esperientzia gabeak aurki ditzakegu. Sarri gertatu ohi da babesgabetasun egoera larrienetan dauden haur eta gazteekin lan egiten duten profesionalak direla, era berean, lan baldintza okerrenetan daudenak. Profesional gazte hauek lanpostu hauek behin-behinekotzat hartu ohi dituzte eta askotan akituta bukatu ohi dute. Ezin eska genezake babesik gabeko haurrei zuzenduriko arreta egokia, bertan lan egiten duten profesionalak lan baldintza egokirik ez badute.

Jasotze-data: 2009/1/14

Onartze-data: 2009/6/24

Abstract

Neglected Children is a very complex and fast developing area of professional undertaking, due to the new social realities which are emerging and, as a consequence, the new problems which professionals have to face in the attention to the underaged. Social educators have had to devise an answer to the the new reality, and they have developed a rich professional practice which has not been taken into consideration by the educational research in the area. To come to terms with the facts underlying that reality- we have been forced to go into a careful analysis of the educational and social context in which that practice is taking place. That should be described as a very complex —and complicated— scheme of administrative dependencies, the intervening of social agents, the professional action, and the varied typologies which are exhibiting the subjects of the interaction. In this paper we go into a comparative study of infancy protection in the Autonomous Community of the Basque Country. This analysis constitutes a significative part of a major study

carried out by a research group —academics, and educators in service— in the University of the Basque Country, UPV/EHU.

Keywords: *Children and adolescence protection system's. Fostering. Social Care. Neglected children. The Basque Country.*

La atención a la infancia desprotegida constituye en la actualidad un campo trabajo profesional complejo y cambiante, debido tanto a las nuevas realidades sociales como a las situaciones problemáticas que afectan los menores. Los educadores sociales han dado respuesta a esa complejidad, y han desarrollando prácticas profesionales ricas y variadas que, paradójicamente, no han sido recogidas en la producción científica de carácter educativo. El estudio de las prácticas de los educadores y las educadoras sociales, nos ha obligado a analizar en profundidad el contexto en que se realiza esa acción profesional. Un contexto que está inserto en un complicado entramado de dependencias administrativas, de agentes sociales, de figuras profesionales y de tipologías de los sujetos con los que se actúa... Representa, una realidad multifacética, compleja y de difícil apreciación. En este artículo se presenta el estudio comparado del contexto de protección a la infancia en la Comunidad Autónoma del País Vasco y representa una parte de un trabajo más amplio realizado por un grupo de investigación de la UPV/EHU, constituido por profesionales del mundo académico y de la educación social.

Palabras clave: *Protección a la infancia y adolescencia. Acogimiento de menores. Educación social. Niño en situación de riesgo. País Vasco.*

La prise en charge de l'enfance en difficulté constitue de nos jours un terrain de travail professionnel complexe et changeant, en raison non seulement des nouvelles réalités sociales comme des problématiques touchant les mineurs. Les éducateurs sociaux ont apporté une réponse à cette situation complexe, ils ont développé des pratiques professionnelles riches et variées qui, paradoxalement n'ont pas été reprises dans la production scientifique à caractère éducatif. L'étude des pratiques des éducateurs et éducatrices sociaux nous a poussés à analyser en profondeur le contexte encadrant cette action professionnelle. Un contexte inséré dans un compliqué tissu de dépendances administratives, d'agents sociaux, de figures professionnelles et de types de sujets avec lesquels on est en interaction. Cette étude représente une réalité multi-facettes, complexe et difficile à apprécier. L'article qui suit présente l'étude comparée du contexte lié à la protection de l'enfance sur la Communauté Autonome du Pays Basque, il représente une partie d'un travail plus ample réalisé par un groupe de recherche de l'UPV/EHU, constitué de professionnels du milieu enseignant et de l'éducation sociale.

Mots clé: *Protection de l'enfance et l'adolescence. Placement en famille d'accueil. Éducation sociale. Enfant délaissé. Pays-Basque.*

BIBLIOGRAFIA

- Aisa, E. (2000): *Tratu txarrak eta babesik eza umezaroan eta nerabezaroan Arrisku egoeran daudenentzako atenzioa*. Bilbo, Eusko Jaurlaritzaz — Osasun Saila — eta Bizkaiko Foru Aldundia-Gizartekintza Saila.
- Anda, J.; Martínez Paz, L.; Colomer, P.; IRSE (2003): «El Programa de Educación de Calle en Vitoria-Gasteiz: Proyecto de Intervención Socio-Educativa», *Gizaberri Boletina*, apirila.
- Arartekoa (2005): *Bakarrik dauden adin txikiko atzeritarren egoera EAE-n*. Arartekoaren (Euskadiko Autonomia Erkidegoko herritarren eskubideen babeslearen) txosten berezia Eusko Jaurlaritzara. http://www.ararteko.net/Recursosweb/DOCUMENTOS/1/1_10_3.pdf. 2008ko irailean kontsultatua.
- Bizkaiko Foru Aldundia (2005): *Babesik gabeko haurrek in eskua hartzeko eskuliburua*. <http://www.bizkaia.net/Home2/Archivos/DPTO3/Temas/Pdf/ESKULIBURUA.pdf>. 2008ko irailean kontsultatua.
- Bizkaiko Foru Aldundia (2006): *Plan de infancia de las situaciones de desprotección infantil. Informe de evaluación*. <http://www.bizkaia.net/Home2/Archivos/DPTO3/Temas/Pdf/Evaluacion%20Plan%20de%20infancia.pdf>. 2008ko irailean kontsultatua.
- Bizkaiko Foru Aldundia (2007): *Informe Situacional 2006, La intervención Socioeducativa con Infancia, Juventud y Familia en el Territorio Histórico de Bizkaia*. Bilbao, Departamento de Acción Social-Gizartekintza Saila. Servicio de Planificación y Estudios.
- Bizkaiko Foru Aldundia: *Bizkaiko Foru Aldundiaren Memoriak, 2003, 2004, 2005 urteak*. Bilbo, Gizartekintza Saila.
- Bravo, A.; Fernández del Valle, J (2001): «Evaluación de la integración social en acogimiento residencial». *Psicothema*, 13 (2), 197-204.
- Gipuzkoako Foru Aldundia (2003): *Plan integral de atención a la infancia y juventud en desprotección social*. Donostia, Gipuzkoako Foru Aldundia. Gizarte Politikarako Departamentua.
- Gipuzkoako Foru Aldundia (2004): *Haurrak babesik gabeko egoeretan daudenean eskua hartzeko gida*. Donostia, Gipuzkoako Foru Aldundia. <http://www.gipuzkoagazteria.net/informazioa/webproteccion/presenteusk.htm>. 2008ko irailean kontsultatua.
- Gipuzkoako Foru Aldundia (2005): *Plan Estratégico del Servicio de Juventud 2005-2008*. Donostia. Servicio de Infancia, Juventud y Cooperación al Desarrollo.
- Gipuzkoako Foru Aldundia: *Gizarte Politikarako departamentuaren «Haur eta Gazteak Zerbitzuen Gida»*. http://www.gizartepolitika.net/03_guiaservicios.php. 2008ko irailean kontsultatua.
- Gipuzkoako Heziketa Konpentsatorioko eta Prestakuntza Okupazionalako Kontsultazioa (2001): *Haur eta gazteei zuzenduriko eskuhartzearen planifikazioa eta garapena eremu irekian*. Donostia, Gipuzkoako Heziketa Konpentsatorioko eta Prestakuntza Okupazionalako Kontsultazioa.
- Gizartekintza (2002): *Babesik gabeko haur eta gazteak zaintzeko plan orokorra*. Donostia/San Sebastián, Gipuzkoako Foru Aldundia.
- Haurbabsa Lanbide Taldea (2007): *La aventura de investigar juntos. Una experiencia llena de futuro*. 5.º Congreso Estatal de Educadoras/educadores Socia-

- les. «La profesionalización: recorridos y retratos de una profesión». Toledo, irailaren 27-29.
- Haurbabea Lanbide Taldea: *Lan hau txertatzen deneko ikerketaren diseinua, eta taldearen beste zenbait lan lotura honetan kontsulta daitezke*. <http://www.haurbabetesalanbide.net/>.
- Jolonch, A. (2002): *Educació i infància en risc*. Barcelona, Portic.
- Riera, J. (1998): *Concepto, formación y profesionalización de, el educador social, el trabajador social y el pedagogo social: un enfoque interdisciplinar e inter-profesional*. Valencia, Nau LLibres.
- Salazar, M. C. (1990): *La investigación-acción participativa. Inicios y desarrollos*. Madrid, Popular/OIE/5.º centenario.
- Shön, D. A. (1992): *La formación de profesionales reflexivos. Hacia un nuevo diseño de la enseñanza aprendizaje de los profesionales*. Madrid, Paidós.
- Strauss, A.; Corbin, J. (2002): *Bases de investigación cualitativa. Técnicas y procedimientos para desarrollar la teoría fundamentada*. Antioquía Colombia, Editorial Universidad de Antioquía.
- Tiana, F. S. A. (2003): *Génesis y situación de la educación social en Europa*. Madrid, UNED.
- Vallés, M. S. (1997): *Técnicas cualitativas de investigación social. Reflexión metodológica y práctica profesional*. Madrid, Síntesis.
- Vitoria-Gasteizko Udala (2006). *Estudio diagnóstico de la situación de la infancia y adolescencia en Vitoria-Gasteiz*. <http://www.gipuzkoagazteria.net/admingazteria/dokumentuak/Estudiodiagn%F3stico%20de%20la%20situaci%F3n%20de%20la%20infancia%20y%20adolescencia%20en%20Vitoria-Gazteiz.pdf>. 2008ko irailean kontsultatua.
- Batzuren Artean (2006): *Educación de Calle en Andoain (1994-2006). Memoria de un programa de intervención socioeducativa en medio abierto*. Ayuntamiento de Andoain-Departamento de Servicios Sociales/Diputación Foral de Gipuzkoa.